

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA LEGE-ARAUBIDEA

1.- artikulua.- Irabazi-asmorik gabeko

ASOCIACIÓN CULTURAL "ZINTZILIK I"

elkartea¹ eratu da, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organoei behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkartearen **HELBURUAK**² honako hauek dira:

Gaur egungo eta iraganeko teknologia, teknologia berrien komunikazioaren eta aplikazioaren ikerketa eta azterketa, hainbat alderditan: irrati-difusioa, teledifusioa, ikuskizunak eta teknologia berriak.

Idazkariaren sinadura

Presidentearen sinadura

¹Izenak estatutuen helburuei egin behar die erreferentzia, eta hura bereiziko duen termino bat jaso behar du (adibidez: *Etxetxo Kultur Elkarte*). Era berean, izenak ez du nahasura sortu behar elkartearen izaerari dagokionez, eta ez da izan behar Elkartearen Erregistroan aldez aurretik inskribatutako beste baten antzekoa (EEL 10. art.). Horretarako prestatutako bilatzailean inskribatutako izenak kontsulta ditzakezue:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzaren-administrazio-erregistroak/-/elkarte-erregistroa-bilatzailea/>

²Elkartearen helburuak zehatz-mehatz deskribatu behar dira (EEL 9.1.b. art.)



Nahi izanez gero, J0D0Z-T4CYA-73H3 bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T4CYA-73H3 en la sede electrónica <https://euskadi.eus/localizador>

Helburu horiek lortzeko, **JARDUERA HAUEK**³ egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

- Urtean bitan gai ezberdinetako hitzaldiak antolatu.
- Urtean bitan gai ezberdinetako proiektzioak egin.
- Urtean bitan mahai-inguruak antolatu.
- Irratsaioen sorkuntza eta difusioa.
- Urtean bitan irrati eta telekomunikazio tailerrak egin.

Idazkariaren sinadura



Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedek betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua.- Hona elkartearen egoitza nagusia:

Helbidea:

Udalerrria:

Posta kodea:

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.

Presidentearen sinadura



³ Elkartearen jarduerak zehatz-mehatz deskribatu behar dira (EEL 9.1.b. art.)

LURRALDE ERĒMUA

4. artikulua.- Hemen, lurralde-eremu honetan⁴ nagusiki, garatuko ditu bere funtzioak elkarteak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan
- Arabako Lurralde Historikoan
- Bizkaiko Lurralde Historikoan
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan
- Beste batzuk⁵:

Elkarteak noizbehinkako jarduerak edo jarduera osagarriak egin ahal izango ditu bere lurralde-eremutik kanpo.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkarteira iraunkorra izateko eratu da, eta VI. kapituluan esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arazoirekin batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen gobernu eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Hona Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a. Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d. Estatutuak aldatzea.
- e. Elkarteak desegitea.
- f. Presidentetza, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g. Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.

⁴ X batekin markatu lurralde eremua.

⁵ Gogoratu, Euskadiko Elkarten Erregistroan inskribatzeko, lurralde-eremu nagusiak ezin duela Euskal Autonomia Erkidegoa gainditu, garapenerako lankidetzako eta/edo laguntza humanitarioko elkarten kasuan izan ezik (LEE 2. art.).

- h. Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i. Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j. Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k. Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l. Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ez-ohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartzeko.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen % ek⁶ eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a. Estatutuak aldatzeko.
- b. Elkartea desegiteko.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira; bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez bost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tarte utzi beharko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Dena den, bertaratutakoen edo ordezkatuena gehiengo osoa beharko da (erdia + 1), honako erabaki hauek hartzeko:

- a. Elkartea desegitea.
- b. Estatutuak aldatzea.
- c. Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d. Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek edozein bazkideren utzi dezakete beren ordezkaritza, Batzar Orokorrera joateari dagokionez. Ordezkaritza hori emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi aurretik eduki beharko du. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezake.

Bazkide bakoitzak bost bazkide ordezkatu ahal izango ditu, gehienez ere.

Idazkariaren sinadura

Presidentearen sinadura

⁶Batzar orokorrerako ezohiko deialdia eskatzeko bazkideen gutxieneko ehunekoa estatutuen gutxieneko edukiaren parte da.. (LEE 9.1.e art.)

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzan dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa.

Zuzendaritza Batzordea **Lehendakaritzak, Idazkaritzak, Diruzaintzak**⁷ eta, hala badagokio, honako kargu hauek osatuko dute⁸:

Lehendakariordea

Batzordekideak Gehienez:

Beste karguak⁹:

Diruzaintza-eginkizuna elkarteko idazkaritzak bete dezake.

15. artikulua.-Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara aldiz jarraian, edo, tarteka aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek URTERAKO¹⁰ izendatuko dira Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.- Pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariak baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kideak izateko:

- a. Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b. Estatuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c. Erakunde bazkidea izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du. Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua utziko dute honelakorik gertatuz gero:

- a. Agintaldia bukatzen denean.
- b. Dimititzen dutenean.
- c. Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d. Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e. Hiltzen direnean.

Baldin eta kargua uzteko arrazoa "a)" idatz-zatian agertzen dena bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

Arrazoa b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena bada, berriz, hutsik gelditutako

⁷Lehendakaritza, Idazkaritza eta Diruzaintza elkarten beharrezko organoak dira. (LEE 15 art.)

⁸Markatu X batez gehitu nahi dituzten karguak. EZ DITUZUE KARGUAK BETEKO DITUZTEN PERTSONEN IZENAK ADIERAZI BEHAR.

⁹ Si establecen más cargos de los previstos en este modelo de estatutos, deberán regular sus atribuciones en el artículo 27. (bis). (art. 9.1.f LAE)

¹⁰Karguen iraupena zehaztea estatutuen gutxieneko edukia da. (LEE 9.1.f art.)

kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

20. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak hauek dira:

- a. Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b. Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c. Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orrria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d. Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e. Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f. Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.
- g. Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen esklusibokoak.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak presidentetzak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru presidentetza izango da, ez balego, presidenteordetza; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, presidentetzaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KARGUAK

PRESIDENTETZA

22. artikulua.- Elkarteko presidenteak bere gain hartuko du elkartearen legezko ordezkartza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatu ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako presidentea izango da.

23. artikulua.- Presidenteak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a. Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b. Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c. Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d. Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e. Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen esklusibokoak.

PRESIDENTEORDETZA (EGONEZ GERO)

24. artikulua.- Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta presidenteak aldi batean bere kargua bete ezin badu, presidenteak ordezkatuko du. Era berean, presidenteak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARITZA

25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartearen sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburuaren zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkartearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkartearen liburuaren eta artxiboaren edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketan berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINITZA

26. artikulua.- Egindako diru-sarrerara eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrerara eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

BATZORDEKIDEAK (EGONEZ GERO)

27. artikulua.- Bokalek beren karguei datxekien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

BESTE KARGUAK (EGONEZ GERO)

27. artikulua bis.- Kargua adierazi eta eskumenak¹¹:

¹¹114. artikuluan araututakoez bestelako karguak adierazi badituzue, kargu horietako bakoitzaren eskurantzak adierazi behar dituzue hemen.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

28. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide¹²:

Pertsona fisikoak:

Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

Pertsona juridikoak:

Eskumena duen organoak bere baitan hartutako erabaki baliodunaren kopia aurkeztu behar dute, eta bertan adieraziko dira bai elkarteko borondatea, bai pertsona juridikoaren izenean arituko denaren izendapena.

Beste baldintza batzuk:

29. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta presidenteari zuzenduta. Presidenteak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gora jotzeko errekurtoa jar dakioko Batzar Orokorrari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.- Bazkidedutako pertsona guztiek eskubide hauek dituzte:

1. Elkarreei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko berrogei eguneko epean.
2. Elkarrearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osakerari, elkarrearen kontu-egoerari eta elkarrearen jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
3. Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarrearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
4. Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi

¹² X erabiliz markatu.

Idazkariaren sinadura

Presidentearen sinadura

- ahal izatea.
5. Elkartearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoean parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
 6. Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
 7. Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
 8. Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
 9. Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
 10. Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

31. artikulua.- Hona bazkideen betebeharrak:

- a. Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b. Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c. Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d. Elkarteko zuzendaritza-organoei baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

BAZKIDE -IZAERA GALTZEA

32. artikulua.- Bazkide izaera arrazoi hauengatik galduko da:

1. Hilez gero (edo, pertsona juridikoen kasuan, deseginez gero).
2. Bazkidea bere borondatez joanez gero.
3. Honelako egoeraren bat gertatzen bada: estatutu hauetatik ondorioztatutako betebeharrak modu larriz ez betetzea, behin eta berriz, eta nahita, edo gauza bera gertatzea Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordio baliodunei dagokienez.

ZEHAPEN-ARAUBIDEA¹³

33. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zehatu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zehapena ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zehatuak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezake presidentetzak. Ikerketaren instruktorea idazkaritza izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zehapena ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zehapena ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zehatzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsua jarri ahalko zaio Batzar Orokorrari.

¹³Zehapen-araubidea estatutuen gutxieneko edukien parte da. (LEE 9.1.j art.)

34. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, presidentetzak idazkaritzari agindu diezaioke aurretiatzko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, presidentetzak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zehapen-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

35. artikulua.- Kanporatzeko zehapen-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedienteko instruktorea izan den idazkariak.

Behin behineko kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, komunikatuz kanporatze-espedientea Ezohiko Batzar Orokorrari helaraziko zaiola, zeinak behin betiko kanporatzeko erabakia hartuko baitu hala badagokio. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide- eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Kanporatze-espedientea lehenengo Ezohiko Batzar Orokorrari helaraziko zaio. Batzarrerako deialdia ez bada hiru hilabetetan egiten, gai horretarako bakarrik egin beharko da, Batzordearen erabakia berresteko edo errebokatzeko.

Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak inputatuak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

36. artikulua.- Behin betiko kanporatze-erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

37. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zehapena ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

38. artikulua.- Elkartearen HASIERAKO – ONDAREA eurokoa da¹⁴.

39. artikulua.- Elkarateak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- Ondare-ekarpenak.
- Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

¹⁴Hasierako ondarrerik ez badago, adierazi 0 euro. Hasierako ondarea estatutuen gutxieneko edukiaeren parte da. (LEE 9.1.I art)

ELKARTEAREN EKITALDIA ETA EKITALDI EKONOMIKOA urte betekoa izango da, eta urte bakoitzeko [abenduaren] (a)ren [31] (e)an itxiko da¹⁵.

Elkarteen jardura ekonomikoak —zerbitzu-emateak barne— egitearen ondorioz lortzen dituzten mozkinak elkartearen xedeak betetzeko bakarrik erabili behar dira. Mozkinak ezin dira banatu ez bazkideen artean, ez horien ezkontideen edo bazkideekin ezkontzaren antzeko harreman afektiboa tarteko bizi diren pertsonen artean, ez eta horien ahaideen artean ere; orobat, mozkinok ezin zaizkie dohain laga irabazi-asmoa duten pertsona fisikoei edo juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

40. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

41. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, presidenteak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Onartua izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak egiten den hurrengo batzorde orokor ezohikoaren gai-zerrendan sartzea erabakiko da.

42. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrek Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALAREN ZERTARAKOA

43. artikulua.- Elkartearen honako kasuetan desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkartearen desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

44. artikulua.- Elkartearen deseginez gero, horixe erabakitzen duen batzar orokor ez-ohikoak Batzorde

¹⁵Elkartearen ekitaldiaren itxiera-data estatutuen gutxieneko edukiaren parte da (LEE 9.1.k art.)

Likidatzaile bat izendatuko du, eta hark hartuko ditu bere gain dauden funtsak.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarre-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarre-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.¹⁶

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eraketa-aktan behin-behinekoz izendatuak agertzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideek egiten den lehenengo Batzar Orokorraren esanetara jarri beharko dute beren izendapena.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.

Idazkariaren sinadura

PRESIDENTEAREN SINADURA

IDAZKARIAREN SINADURA

Presidentearen sinadura



¹⁶Soberako ondarea osatzen duten ondasun eta eskubide guztiek osatuko dute, likidazio-balantzetik ateratzen denaren arabera, eta estatutuetan aurreikusitako irabazi-asmorik gabeko helburu edo erakunde publiko edo pribatuei aplikatuko zaie, Batzar Nagusiak erabakitzen duen moduan. (LEE 31.4 art.)